



2014KO EKAINAREN 6KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko ekainaren lauan, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaraturako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Insausti eta Inazio Estensoro Eskisabel.

Maialen Aldasoro Aranburu zinegotzia ez da bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaraturakoen onespenera aurkezten da 2014ko maiatzaren 23an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2014ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 39 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HEMERETZI MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA ZORTZI ZENTIMO (39.589,48 €)tako onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 14-11-07 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea, 2014ko maiatzaren 22tik aurrera, astean 2 orduz. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %15a izango da.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-

- 14-01-004 zbk.dun esped.: lehen mailako premietarako hilean 33,6€ko dirulaguntza ematea, maiatzetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 14-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimentu gastuetarako hilean 46,25€ko dirulaguntza ematea, maiatzetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.

- 14-01-006 zbk.dun esped.: etxebizitzaren mantenimentu gastuetarako hilean 46,25€ko dirulaguntza ematea, ekainetik abendura. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.



- 14-01-001 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantenimentu gastuetarako laguntzatik baja ematea, 2014ko ekainetik aurrera, bere betebeharrak ez betetzeagatik.

Udal zerga eta tasen ordainketerako laguntza.-

Ondorengo eskatzaileei laguntza ematea:

	Esped. zbkia.	Zenbatekoa	Eskatutakoaren zenbatekoa da ematen zaiena %tan	
	14-16-01	244,42	%75	
	14-16-02	328,12	%100	
	14-16-03	343,37	%100	
	14-16-04	222,85	%100	
	14-16-05	444,11	%100	
	14-16-06	183,26	%50	
	14-16-07	222,53	%75	
	14-16-08	257,61	%100	
	14-16-09	176,94	%50	
	14-16-10	249,68	%75	
	14-16-11	156,34	%50	
	14-16-12	118,36	%50	
	14-16-13	523,47	%100	
	14-16-14	149,03	%75	
	14-16-15	182,06	%75	
	14-16-16	354,38	%100	
	LAGUNTZAK GUZTIRA	4.156,53		

Ondorengo eskatzaileei laguntzarik ez ematea:

	Esped. zbkia.	Ez ematearen arrazoa	
	14-16-17	Diru-sarreraren muga gainditu egiten du	
	14-16-18	Diru-sarreraren muga gainditu egiten du	

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bost gubxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

